



Arartekoaren 2018R-299-17 Ebazpena, 2018ko irailaren 20koa. Horren bidez, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu zaio berrazter dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazio eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubidea ukatzeko erabakia; izan ere, iritzi zaio pentsio konpentsatzaileari uko egiteak ez duela esan nahi aurretiaz eskubide ekonomikoa baliarazteko baldintza bete ez denik.

### Aurrekariak

Pertsona batek kexa bat aurkeztu du Arartekoan; izan ere, dibortzioaren hitzarmen arautzailean **pentsio konpentsatzaileari berariaz uko egitean**, eskubide ekonomikoa ez baliatzearen ondorioz diru-sarrerak bermatzeko errentaren **eskaera Lanbidek ukatu egin dio**.

2017ko otsailaren 23an Lanbidek bi komunikazio bidali zizkion kexagileari **erakunde berean** 2017ko otsailaren 7an diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren **prestazioak eskatzeko** izapidetze prozesuan. Horiek azaldutakoaren arabera, batetik, espedientearen berraztertze prozesua ireki zuen baldintzak eta eskakizunak betetzen zituela egiaztatzeke. Ildo horri eutsiz, baldintza/eskakizunak ez zituela betetzen antzeman zen (2017/RGI/003341). Zehatz-mehatz esanda, hurrengoak ziren:

*“Espedientea amaitu baino lehen, titularrari edo bizikidetz-unitateko edozein kideri dagokion eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea. 2017/01/18ko dibortzio ebazpenean aprobatutako hitzarmen arautzailean dionez, **espresuki uko egiten duzu pentsio konpentsatzailea eskatzera**”.*

Bestetik, 10 egunetan honako **dokumentazioa** entregatzea eskatu zion:

- Bizikidetz-unitateko kide guztien banku titulu eta ziurtagiriak.
- Beste diru-sarrera batzuen zinpeko aitopena.
- Orri guztiak zigitatuak izanda, kexagilearen pasaporteak.
- Alokairuaren errenta sartzen duen kontuaren zenbakia.
- Etxebiden izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

2017ko martxoaren 6an, bere espedientearen berraztertze prozesuan Lanbidek bidalitako dokumentazioaren errekerimenduari erantzuteko, kexagileak **Lanbiden alegazioak aurkeztu zituen** (2017/76293 frogagiria), hurrengo dokumentazioarekin batera: banku ziurtagiriak eta mugimenduak, zinpeko adierazpena, ibilgailuaren dokumentazioa, pasaporteak galdu izanaren salaketa, Etxebiden eskabidea eta alokairua ordaintzeko kontu zenbakia.

Hala eta guztiz ere, **Lanbidek prestazioaren eskubidea onartzeko eskabidea ukatu zuen** 2017ko martxoaren 24ko ebazpenaren bidez eta hurrengo arrazoiak eman





zituen: *“Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 14/2010 Dekretuaren arabera, bere 9.8 artikuluan, non eskubidearen titulartasuna lortzeko baldintzak arautzen diren. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra ez izatea”.*

Lanbideren iritziz, kexagileak eskubide ekonomikoa ez du erabili, izan ere, berariaz uko egin zion ezein kopuru jasotzeari edo pentsio konpentsatzaileari (Kode Zibilaren 97. artikuluan arautua) Tolosako 1. Instantziako eta 3. Instrukzioko Zuzeneko Laguntza emateko Unitate Prozesalaren 2017ko urtarrilaren 18ko 37/2016 dibortzio epaian onartu zuen hitzarmen arautzailean. Epaia irmoa da eta laugarren zuzenbide oinarrian hala zioen: *“...el convenio suscrito por los cónyuges y que afecta a los hijos menores de edad ha de ser aprobado al no estimarse dañoso para ellos, ni gravemente perjudicial para los cónyuges, conforme a lo dispuesto en el art.90 CC, habiéndose cumplido, por otra parte, el informe del Fiscal”.* Kexagileak 201/12/15ean aurkeztu zuen gizarte eta lan txostenean bikote ohiaren **bi kideak langabezia zeudela ageri zen, baita 2011ko maiatzaren 31n ezkondu baino lehen ere**. Hala adierazten da ezkontza ziurtagiriaren hitzez hitzeko kopian eta Lanbideren esku dago. Senar-emazteek **56 hilabete iraun zituzten**. Gorabeherak kontuan hartuta, **bi aldeek borondatez pentsio konpentsatzailea eskatzeari uko egin zioten**, 2017ko urtarrilaren 18ko dibortzioaren epaian islatzen den modura. Epaia berak elikadura pentsioa ezartzen zuen bikotearen bi seme-alaba adingabeentzat. Hilean 190 euro ziren.

**2017ko otsailaren 15ean Arartekoan kexa aurkeztu** ondoren eta izapidetzea onartu ostean, azalduakoa aintzat hartuta, Arartekoak idazki bat helarazi zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, eta aurreko egitateei buruzko informazioa eskatu zion, ez errepikatzeko aurrerago azalduko ditugun gogoetekin.

**Lankidetzak eskaerari erantzunez**, Lanbideko zuzendari nagusiak txosten bat igorri zigun; horren bidez, egindako gogoetak aintzat hartuta, prestazioa eteteko ebazpena honako argudio hauekin arrazoitu zuen:

-Batetik, *“(...) andreak (AIZ: XXXXXE) diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu zuela, eta ukatu egin ziotela, zenbatekorik edo konpentsazio-pentsiorik eskatzeari berariaz uko egin ziola jasotzen baita 2017-01-18ko dibortzio-epaiaren hitzarmen erregulatzailean”.*

-Bestetik, *“Ondoren, hitzarmen erregulatzaile hori aldatzea eskatu zuela Tolosako Epaitegian, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu zuela berriro, hilaren 2an”*

2017ko apirilaren 26an, bi gurasoek hala eskatuta, gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak aldatzea erabaki zen (37/2016 zenbakiz auzitegi berean alde aurretik izapidetutako prozesuan onartuak) Tolosako 1. Instantziako eta 3. Instrukzioko Zuzeneko Laguntza emateko Unitate Prozesalaren 95/2017 epaiaren bidez.

Beraz, beharrezkoak diren zuzenbideko egitateak eta oinarriak dauzkagula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin ditugu:





## Gogoetak

1. Lanbidek kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatzea ebatzi du, ez baita baliarazi eduki ekonomikoko eskubide bat, horretarako eman zen 2017ko martxoaren 24ko ebazpenean (2017/RGI/00341) idatzita jasota dagoen moduan.

Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 147/2010 Dekretuaren 9.8 artikuluan ezartzen dira eskubidearen titulartasuna lortzeko baldintzak: *Eskubidearen titulartasuna lortzeko baldintzak: Honako pertsona hauek izan ahalko dira Diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidearen titularrak, modalitate horietako bakoitzerako dekretu honetan aurreikusitako baldintzetan: 8.– Espedientearen izapidetzea amaitu aurretik titularrari edo bizikidetzta-unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea”.*

Hau da, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatzea erabaki du, erakundearen arabera, kexagileak eskubide ekonomikoa ez baitu erabili eta diru-sarrera bermatzeko errentaren onuradunek bete behar dute. Halaber, eskubidearen titularrek betebeharra eta iraungitzeko arrazoia azaldu beharko dute.

2. Horrez gain, **2017ko Lanbideren irizpideen** dokumentuak **9.2. atalean** hala dio: *“Baliatu behar diren eskubide ekonomikoa “...zerrenda hau ez da ez zorrotza ez baztertzatzailea: Mantenu-pentsioa edo konpentsazio-pentsioa erreklamatzeko”.*

Aztergai dugun kasuan, honako hau argitu behar da: pensio konpentsatzailea ezkontideen eskubide subjektiboa den. Ildo horri eutsiz, Kode Zibilaren 97. artikulua hurrengoa xedatzen du:

*“97. artikulua*

*Banantzeak edo dibortzioak ezkontide bati desoreka ekonomikoa ekarri badio beste ezkontidearen egoerari begira, eta, horren ondorioz, ezkontza bitartean izan zuen egoerak txarrera egin badu, ezkontide horrek konpentsazioa jasotzeko eskubidea izango du; konpentsazio hori aldi baterako edo denbora- mugarik gabeko pensioa izan daiteke, hitzarmen arau-emaileak edo epaiak kasuan-kasuan zehaztutakoaren arabera.*

*(...)*

*Epailearen ebazpenean edo idazkari judizialaren edo notarioaren aurrean formalizatutako hitzarmen arau-emaietan finkatuko dira pensioaren aldizkakotasuna, ordaintzeko modua, eguneratzeko oinarriak, iraupena edo bertan behera uzteko unea eta horren ordainketa gauzatzeko bermeak”.*

3. **Pensio konpentsatzailea onartzeko Kode Zibilak 97. artikuluan hurrengo irizpideak kontuan hartzen ditu:**





*Ezkontideen artean adostasunik izan ezean, epaileak, epaian bertan, horren zerbatekoa zehaztuko du, eta, horretarako, hurrengo inguruabarrak izango ditu kontuan:*

- 1) Ezkontideen artean egindako akordioak*
- 2) Ezkontideen adina eta osasun-egoera.*
- 3) Ezkontideek lanbiderako duten kualifikazioa eta lanpostua lortzeko aukera.*
  
- 4) Familiari begira ezkontideek izan duten eta izango duten ardua*
- 5) Ezkontide batek bere lanarekin bestearen merkataritza-, industria- edo lanbide-jardueretan eman duen laguntza*
- 6) Ezkontzaren eta ezkontideen arteko elkarbizitzaren iraupena.*
- 7) Ezkontide batek pentsio-eskubidea izan eta hori galtzeko duen arriskua.*
- 8) Ezkontide batek eta besteak dituzten ondasun, baliabide ekonomiko eta beharrianak.*
- 9) Garrantzitsu gerta daitezkeen inguruabarretatik beste edozein*

**Horrek ez du esan nahi pentsio konpentsatzailerako eskubide orokorra dagoenik;** lege lotura desagiteko prozesuan murgilduta egonik, **bikote bakoitzaren gorabehera berezien arabera sor daiteke**, baina ez da nahitaezkoa, ezta automatikoa ere ezkontza eten ondoren pentsio konpentsatzailea zehaztea. **Eskearen printzipioaren araberrako eskubidea deritza eta erabilera-izaera du.** Hortaz, aldeek eskatu behar dute. Egiten ez badute edo eskubide horri uko egiten badiote, epaileak ez du ofizioz ematen.

**Auzitegi Gorenaren** 2012ko apirilaren 20ko 2099/2010 **Epaia**k, Zibilaren arloko sala, 1. atala aipatzen duen bezala: *“La pensión compensatoria es un derecho disponible por la parte a quien pueda afectar. Rige el principio de la autonomía de la voluntad tanto en su reclamación, de modo que puede renunciarse, como en su propia configuración”.*

*2º Los cónyuges pueden pactar lo que consideren más conveniente sobre la regulación de las relaciones que surgen como consecuencia del divorcio o la separación. La STS 217/2011, de 31 marzo, confirma esta doctrina, recogiendo sentencias de esta Sala que ya habían admitido esta validez, a partir de la trascendental sentencia de 2 abril 1997.*

*El convenio es, por tanto, un negocio jurídico de derecho de familia que, de acuerdo con la autonomía de la voluntad de los afectados, puede contener tanto pactos típicos, como atípicos, como es el que ahora nos ocupa, (en un supuesto parecido, STS 758/2011, de 4 noviembre), por lo que debe examinarse si se ha aplicado por parte de la sentencia recurrida el completo acuerdo de las partes”.*

Halaber, **Auzitegi Gorenaren** 1987ko abenduaren 2ko RJ\1987\9174 **Epaia**k, Zibilaren arloko Sala, Kode Zibilaren 97. artikuluekin lotuta, honakoa dio: pentsio konpentsatzailea eskubide subjektiboa da eta erabiltze-zuzenbideko arauak arautzen du, baina ez da aginduzkoa. **Beraz, pentsio konpentsatzailea jasotzeko eskubidea ez da orokorra.** Hala, bikote bakoitzaren gorabehera berezien arabera sor daiteke.





Hortaz, kexagilearen kasuan, bikoteak balioetsitakoaren arabera, bestearen jarrera kontuan hartuta, senar-emazteak zirenean aurreko egoera okertzeko ez zen desoreka ekonomikorik izan, bi aldeak langabezian baitzeuden. Hala, bi aldeek borondatez uko egin zioten pentsio konpentsatzailea erreklamatzeari, 2017ko urtarrilaren 18ko epai irmoak islatzen duen moduan Horrek dibortzioa ebatzi eta hitzartutakoa hitzarmen arautzailean ipini zuen.

Arartekoaren ustez, pentsio konpentsatzailea bikotekideek eskura dezaketen eskubidea da. Nolanahi ere, legegileak Kode Zibilak 97. artikuluan xedatutako gorabeherak ematen badira, berdintzeko aurrez ikusi du. Kontuan hartu behar da bi aldeak ados ez badaude auzi prozedura judizialera jo beharko dutela. Halakoetan, epaileak erabakiko du auzian eztabaidatu diren gaiei buruz. **Beraz, epaileak lege araubide aplikagarriari eta jurisprudentziari erreparatuz, pentsio konpentsatzailea bidezkoa den erabakiko du.**

Arartekoak berriz azpimarratzen du bere iritziz Lanbide **eskubide ekonomikoa baliaraztearen baldintzari buruz gehiegizko interpretazioa** egiten ari dela. Ildo horri eutsiz, pertsonak arrazoizkoa gainditzen duten jokabideak gauzatzera behartzen ditu. Erakunde honek nabarmendu nahi du diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak eta diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko 147/2010 Dekretuak baldintzen artean ez dutela eskatzen pentsio konpentsatzailea erreklamatzea, eskubide ekonomikoa baliaraztea baizik. Beraz, eskubide hori eraginkor izateko baldintzak betetzen al diren aztertu beharko litzateke. **Kasu honetan, gorabeherak kontuan hartuta, ezin daiteke zalantzarik gabe ondorioztatu desoreka ekonomikoa egon denik eta, ondorioz, senar-emazte zirenean zuten egoerarekiko egoera berriak okerrera egin duenik, horrek naturalki pentsio konpentsatzailea finkatzera eramango bailuke.**

Hortaz, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak hauxe gomendatu dio Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

## GOMENDIOA

Berrazter dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazio eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubidea ukatzen duen ebazpena, izan ere, senar-emazte izandako horien egoeran, iritzi zaio pentsio konpentsatzaileari uko egiteak ez duela esan nahi aurretiaz eskubide ekonomikoa baliarazteko baldintza bete ez denik.

